

**ERABAKIA, 2024ko OTSAILAREN 23koa, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA ETA GERENTEARENA, UPV/EHUko ZERBITZUENGATIKO ETA PROTOKOLO ETA ORDEZKARITZA GASTUENGATIKO ORDAINEN ARLOKO ZEHAZTAPENEI BURUZKOA**

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2024ko otsailaren 22ko akordioak zehaztaperen batzuk egiten ditu UPV/EHUko zerbitzu ordainen alorrean, eguneratu egiten du 2012ko martxoaren 27ko akordioa eta baimena ematen die Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeari eta gerenteari erabaki bat hartzeko zerbitzu ordainen inguruan, oinarri hartuta akordioaren lehenengo puntuan jasotako zehaztapenak, Ekonomia Batzordea jakinaren gainean jarri eta gero.

Orain, erabaki hori eman behar da, 2012tik indarrean dauden irizpideak eta jarraibideak eguneratzeko.

Ondorioz, Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak eta gerenteak, beren eskumenen babesean,

**ERABAKI DUTE**

**I. UPV/EHUko KIDEEI ZERBITZU EDO GASTU ORDAINAK EMATERAKOAN APLIKATU BEHARREKO JARRAIBIDEAK**

**Lehenengoa. APLIKAZIO EREMUA ETA PRINTZIPIO OROKORRAK**

1. Erabaki honek ezartzen du zer baldintza bete behar diren ordainak jasotzeko zerbitzu eginkizunengatik, bai eta horiek kudeatzeko prozedura ere. Zerbitzu eginkizunak dira unibertsitateko langileei egoera jakin batzuetan baimentzen edo agintzen zaizkien zeregin bereziak, ohiko lanlekua duten udalerritik kanpo egin beharrekoak. Ohiko lanpostua dagoen lekua hartuko da zerbitzu eginkizunetarako joan-etorrien abiapuntutzat eta amaiera puntutzat, lehenengo puntu honen 7. eta 8. ataletan adierazitakoan izan ezik.
2. Erabaki hau aplikatuko zaio UPV/EHUko pertsonal guztiari.
3. Ohiko lanpostua: ikastetxe batean irakasten duten eta ikerketa-jarduera beste campus bateko beste batean egiten duten irakasle eta ikertzaileen kasuan, zerbitzuagatiko joan-etorrien hasieratzat eta amaieratzat hartuko da erreferentziako jardunaldian lan egiten duten zentroarena.
4. Lizenziak edo baimenak izapidetuko dira ohiko lanlekua dagoen udalerritik kanpo egin beharreko jarduera eta ekitaldi hauen aurretik:
  - 4.1. Kongresu, ikastaro, mintegi, sinposio, topaketa, lehiaketa, solasaldi, hitzaldi, bilera eta jardunaldi zientifiko, tekniko eta profesionaletara joatea.
  - 4.2. Ikerketa proiektuen, kontratuen eta bestelako ikerketa laguntzen kontura eginiko joan-etorriak.

Lizenziaren edo baimenaren baimena erantsiko zaio zerbitzu ordainen likidazioari. Landa-lanen irteeren liburua duten sailen kasuan, nahikoa izango da eranstea zerbitzu ordainaren

likidazioa eskatzen den egunean edo egunetan eginiko irteera jasotzen duen liburuaren kopia bat. Ez da ordainduko likidaziorik, lizentzia edo baimenaren kopiarik edo aipatutako liburuaren kopiarik erantsita ez bada.

5. Erabaki honen xedea da ezartzea ordaina jasotzeko eskubidea ematen duten zerbitzu eginkizunen araubidea, eta ordaina jasotzeko eskubidea duten langileek bete egin behar dituzte austeritate eta funts publikoen erabilera egokiaren printzipioak. Nahitaez aurkeztu beharko dira eginiko gastuak justifikatzeko agiriak (fakturak, txartelak...), eta ez da onartuko banku kargurik.
6. Honako gastu hauek hartuko dira kontuan zerbitzu ordainak ematean:
  - 6.1. UPV/EHUko kideek beren lana dela eta egin beharreko joan-etorriek sortutako gastuak.
  - 6.2. Pertsonala hautatzeko oposizio edo lehiaketetako epaimahaietan parte hartzeak sortutako gastuak, lanbide batean aritzeko edo zereginen batean jarduteko gainditu beharreko probetako epaimahaietan aritzeak sortutako gastuak, bai eta Administrazioaren prestakuntza ekintzetan noizbehinka laguntzeak sortutakoak ere.
  - 6.3. Kongresuetara eta prestakuntza edo hobekuntza ikastaro eta jardunaldietara joateak sortutako gastuak, jarduera horietarako baimena ematen duen erabakiak hala zehazten duenean.
  - 6.4. Lanaldia luzatzea. Langileak bere ohiko lanaldia luzatu behar badu eta, ondorioz, ostatu, bidaia eta otordu gastuak baditu, erabaki honetan ezarritako moduan ordainduko zaizkio. Egoera horrek dagokion baimena izan beharko du.
7. Langileari ondoren aipatzen diren gastuak ordainduko zaizkio, erabaki honetan zehaztutako baldintza eta kasuetan:
  - 7.1. Joan-etorri edo bidaien gastuak. Zerbitzu eginkizunengatik edozein garraibide erabiltzeak sortutako gastuen ordaina.
  - 7.2. Bazkari edo afari gastuak. Otorduen gastuen ordaina (banaka hartuak, bazkariak eta afariak).
  - 7.3. Mantenu gastuak. Ohiko bizilekutik kanpoko egonaldian egunero eginiko bazkarien eta afarien gastuak batera ordaintzeko ematen den kopurua.
  - 7.4. Ostatu gastuak. Bizilekutik eta ohiko lanpostua dagoen udalerritik kanpo ostatu hartzeak eta gosaltzeak sortutako gastuen ordaina.
  - 7.5. Bertaratzea. Epaimahaietan parte hartzeak eta prestakuntza jardueretan laguntzeak sortutako gastuen ordaina.
8. Gehienez ere ordainduko dira baimendutako zeregin bereziak iraun dituen egunak, gehi aurreko eguna eta jarduera amaitu ondorengo, joan-etorriak hala justifikatzen badu. Ozeanoz gaindiko bidaietan eta aireportu batean baino gehiagotan geldialdia egiten duten joan-etorrietan, jardueraren aurreko bi egunak eta ondorengo biak ordainduko dira, baldin eta agiri bidez justifikatzen bada.
9. Ez da inola ere ordainduko bizilekutik lantokira eginiko ohiko joan-etorriak, nahiz eta hura beste udalerritik batean egon. Hala ere, zerbitzu eginkizuna goizean goiz hasten bada eta bertara lantokitik igaro gabe joan behar bada, langilea bizi den udalerritik hartuko da irteera erreferentziatuz, baldin eta udalerritik hori hurbilago badago zerbitzu eginkizuna bete behar den lekutik. Irizpide bera erabiliko da zerbitzu eginkizuna berandu amaitu eta, ondorioz, lantokira joateko beranduegi bada.

10. Bi ikastegitan irakasten duten irakasleek arautegi espezifiko bat dute beren joan-etorrietarako.
11. Ez da inola ere ordainduko ostalaritza establezimenduetan ohiko bazkari edo afari orduetatik kanpo eginiko kontsumizioen tiket edo fakturarik. Beraz, ez da ordainduko goiz erdiko gosari, askari, kafe, freskagarri, kopa, pintxorik... salbu eta bazkari edo afariaren ordeztu egin badira eta ezarritako muga gainditzen ez badute (I. eta II. eranskinak).
12. Bertaratze ziurtagiria erantsiko zaio nahitaez ikastaro, batzar edo epaimahai batean aritzeak sortutako gastuen ordainaren eskaerari. Bertaratze ziurtagiria aurkeztu ezean, ez da ordainduko era honetako gasturik.
13. Erabaki hau oro har aplikatuko da kasu guztietan, LOSUren 60. artikulua babesean eginiko kontratuetatik sortutako finantzaketatik eratorritakoak barne, eta salbuespen bakarra izango dira erabakiaren zazpigarren atalean araututako kanpo finantzaketako deialdiak edo programak.
14. Gastuak banatu ahal izango dira organikoen artean edo erakundeen artean, baina ezin izango dira inoiz bikoiztu.
15. Bazkari edo afari gastuak ordaintzeko, nahitaez aurkeztu beharko da faktura edo tiketa. Gastuen frogagiria pertsona bati baino gehiagori badagokio (UPV/EHUko kideak), ordaindu beharreko zenbatekoak ez du gaindituko banakako muga mahaikide kopuruaz biderkatzearen emaitza. Gainera, otorduan izan diren pertsona guztien izen-abizenak eman beharko dira. Fakturaren edo frogagiriaren kopia bat aurkeztuko da, jatorrizkoa zer organikotan dagoen adierazita.
16. Arautegi orokorraren salbuespenak  
Errektore taldea, gerente taldea, fakultateko dekanak, ikastegiko zuzendariak eta errektoreordetzen mende dauden zuzendariak, fakultateko dekanoen edo ikastegiko zuzendarien pareko izendapena dutenak, edota espresuki eta idatziz eskuordetzen den pertsona. *Otordu eta ostatu gastuak ordaintzeko eskubidea aitortzeko mugak ez dira aplikatuko* kargu horiek dituzten pertsonak beren ordezkari instituzionala betetzeko eginiko joan-etorrietan. Kasu horietan, benetan eginiko gastua ordainduko da, eta kontuan hartuko dira austeritate, funts publikoen erabilera egoki eta gobernamentu onaren irizpideak.
17. Salbuespenak. Salbuespen gisa, gerenteak baimena eman dezake zerbitzu eginkizunengatiko ordainak jasotzeko erabaki honetan jaso ez diren egoeretan. Baimena oinarrituko da arrazoi objektiboetan.
18. Bidaia edo joan-etorri, ostatu eta mantenu zerbitzuak modu hauetakoren batean kontratatuko dira:
  - 1) UPV/EHUK formalizatutako esparru akordioan oinarritutako kontratu baten bidez.  
Kontratua esleituko zaio esparru akordioan hautatutako bidaia agentziari edo bidaia agentzietako bati, baldintza agerian ezarritakoaren arabera, dagokion kreditua erreserbatu ondoren.  
Esparru akordiorik ez badago, kontratu txiki baten bidez kontratatu ahal izango dira zerbitzu horiek, baldin eta kontratua sinatzeko baldintzak betetzen badira, aintzat harturik kontratazio publikoari buruzko araudia eta erabaki honetan ezarritako mugak.
  - 2) Zuzenean beste bitarteko batzuen bidez.  
Kasu honetan, fakturak egon beharko du eskatzailearen izenean, eta gastua berreskuratuko du zerbitzu ordainaren bidez erabilia. Horretarako, zerbitzu ordainak

kudeatzeko tresna erabiliko du, aintzat harturik erabaki honetan ezarritako mugak.

19. BEZa kengarria izango da soil-soilik unibertsitatearen izenean fakturatutako ikerketako unitate funtzionalei egotzitako gastuetan (hornitzailearen aurka kontabilizatuta). Gastu orokorren funtzionalak direnean, BEZa kenduko da hainbanaketari dagokion zatian.
20. Bidaia txartelei eta itzuli beharrik gabeko tarifako ostatuei dagokienez, kostua ordainduko da bidaiatzea eragotzi duten ezinbesteko arrazoiak daudenean, baldin eta behar bezala justifikatzen bada dagokion dokumentazioa aurkeztuta.

## **Bigarrena. JOAN-ETORRIEN EDO BIDAIEN GASTUAK**

Zerbitzuagatiko joan-etorriak edo bidaiak dira langileek beren ohiko eginkizunak betetzeko nahitaez egin behar dituztenak, edo egoera jakin batzuetan agindu zaizkien zereginak betetzeko egin behar dituztenak.

Ahal dela, bidaiak egingo dira garraibide publiko kolektiboetan eta turista klasean. Salbuespenak egin ahal izango dira osasun egoera larrietan, Prebentzio Zerbitzuaren arduradunaren oniritziaz (salbuespena justifikatuko duen dokumentazioa bidaliko zaio).

Joan-etorrien edo bidaien gastuetan, bidaia txartelaren zenbatekoa ordainduko da, eta nork bere ibilgailua erabiliz gero, eginiko distantziari dagokion zenbatekoa, erabaki honen I. eranskinean ezarritakoaren arabera.

Era berean, bidaia gastu gisa ordainduko dira taxian eta antzekoetan eginiko joan-etorriak (faktura aurkeztuta beti), soil-soilik geltokira eta geltokitik eginikoak (trenbide eta autobus geltokiak, portuak, aireportuak), bai eta zerbitzu eginkizuna bete behar den hiri barruan eginiko joan-etorriak ere, gestio ofizialak egin behar diren bulegoetara joateko egin badira.

Halaber ordainduko dira autobideetako bidesari gastuak, hoteletan garajea erabiltzeagatikoak edo zerbitzu eginkizuna betetzeko lekuan aparkaleku publikoak erabiltzeagatiko gastuak.

Aireportuetako aparkalekuak egun batean baino gehiagotan erabili behar direnean, egonaldi luzeko aparkalekuak erabiliko dira, ahal izanez gero.

Ibilgailuen alokairua ere ordainduko da. Espresuki baimendu beharko dute gastua ordainduko den organikoaren arduradunek, garraio modu horren egokitasuna edo beharra justifikatuta beti. Salbuespenzat hartuko da, eta jasoko den kopurua izango da egiazki gastatutakoa eta alokairuaren fakturarekin eta erregai tiketekin justifikatutakoa. Ibilgailua alokatzean ez da ordainduko kilometrajetik.

Ez dira inola ere ordainduko gidaridun autoen alokairuak.

Joan-etorri edo bidaietan eginiko gastuak agirien bidez justifikatuko dira, jatorrizko fakturak, tiketak edo txartelak aurkeztuta, eta horiek galduz gero, dokumentua sortu zuen enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, txartelaren prezioa eta joan-etorriaren data zehaztuko dituen. Txartelarekin batera, joan-etorria egin izanaren frogagiria aurkeztuko da.

Ez da ordainduko dagokion dokumentazioaz justifikatu gabeko gasturik.

Ibilgailu partikularra erabili ahal izango da kasu hauetan:

- Ordaina jasotzeko eskubidea duten pertsonak partekatzen dutenean.
- Joan-etorria eragin duen eginkizuna egun berean hasi eta amaitzen denean.
- Joan-etorria eragin duen eginkizunaren ondorioz, joan-etorri bat baino gehiago egin behar

direnean, udalerrri batean baino gehiagotan.

- Eginkizuna dela-eta, bizkorragoa edo eraginkorragoa denean ibilgailu partikularra erabiltzea garraio kolektiboak erabiltzea baino, edo garraio kolektiborik ez dagoenean.

Baldintzak:

- 500 kilometrotik gorako joan-etorrietan ezin izango da ibilgailua partikularra erabili, ekonomia eta azkartasun arrazoiengatik izan ezik.
- Ibilbidean autobideak badaude, bide mota hori erabiliko da, kilometrotan motzagoa edo azkarragoa den ibilbide bat dagoenean izan ezik.
- Inola ere ez da ordainduko taula honetan jasotakoak gainditzen duen kilometrajetik:

<b>Bizkaiko Campusa</b>				
105	<b>Gipuzkoako Campusa (Do)</b>			
55	55	<b>Gipuzkoako Campusa (Eibar)</b>		
80	115	60	<b>Arabako Campusa</b>	
13	100	50	65	<b>Bizkaiko campusa (Bilbo)</b>

- Gainerako joan-etorrietan, kilometrajea kalkulatzeko erreferentziatzat hartuko da <https://www.google.es/maps> estekaren bidez eginiko kontsultaren emaitza.

Atzerriko zerbitzu eginkizunak justifikatzeko, Estatuan erabilitako prozedura bera erabiliko da.

UPV/EHUREn jabetzako bitartekoak erabiltzean, ez da eskubiderik izango joan-etorriengatik ordaina jasotzeko.

### Hirugarrena. BAZKARI/AFARI EDO MANTENU GASTUAK

Bazkari edo afari gastuaren ordaina jasotzeko eskubidea izango dute lan arrazoiengatik beren ohiko lanlekutik kanpo egonik ordua dela-eta otordua leku horretan egin behar duten pertsonak, zerbitzu eginkizunak gaua bizilekutik kanpo igarotzea eskatzen ez badu ere.

Mantenu ordaina jasotzeko eskubidea izango dute zerbitzu eginkizuna dela-eta bizilekutik kanpo gaua emateaz gain etxetik kanpo bazkaldu eta afaldu behar dutenek.

Mantenu gastuak honela ordainduko dira:

Ordutegia	Mantenu gastuak	Ostatua	
Irteera eguna	Irteera 14:00ak baino lehen	Mantenua	Bai
	Irteera 14:00-22:00 artean	Afaria	Bai
	Irteera 22:00etatik aurrera	Ez	Bai

Tarteko egunak		Mantenua	Bai
Itzulera eguna	Itzulera 14:00ak baino lehen	Ez	Ez
	Itzulera 14:00-22:00 artean	Bazkaria	Ez
	Itzulera 22:00etatik aurrera	Mantenua	Ez

Bidaia hegazkinez eginez gero, zerbitzu eginkizuna hegaldia irten baino 2 ordu lehenago hasiko da atzerriko bidaietan; ordubete lehenago, Estatu barruko bidaietan.

Kasu guztietan, benetan gastatutako kopurua ordainduko da, I. eta II. eranskinetan jasotako balioa gainditu gabe.

Kasu guztietan, otorduak egiten badira ostatu hartu den hotelean, fakturari erantsiko zaizkio bazkari/afari bakoitzaren desgloseari dagozkion tiketak.

Era berean onartuko dira supermerkatu batean eginiko gastuak, baldin eta tiketean jasotakoa bat badator bazkari edo afari baten produktuekin. Ezin izango da sartu bazkari/afari gastuetan graduazio altuko edaririk.

Inola ere ez da ordainduko aireportuetako Duty Free-etan erositako produkturik. Jardunaldi, ikastaro edo batzarretara joatean, izen-ematean bazkari edo afariren bat sartzen bada, galdu egingo da mantenu gastua jasotzeko eskubidea (bazkaria edo afaria) izen-ematea unibertsitateak ordaindu badu. Dokumentazio hau erantsiko zaio gastuen justifikazioari:

- Jardunaldi, ikastaro edo batzarrerako eginiko izen ematea.
- Antolakuntzak bidalitako dokumentazioa, eskainitako hotelei eta ekitaldien barruan sartutako otorduei buruz.

### **Laugarrena. OSTATU GASTUAK**

Ostatu gastuen ordaina jasotzeko eskubidea izango da lan arrazoiengatik gaua eman behar denean ohiko lanpostua dagoen Campusaren lurralde eremutik edo ohiko bizilekutik kanpo. Ostatu gastutzat hartuko dira gela eta gosari gastuak.

UPV/EHUko kideak Estatuko nahiz atzerriko batzar, mintegi, jardunaldi edo antzeko jardueretara doazenean, ostatu gastu bat sortzen bada egitasmo horien antolakuntzaren ostalaritza eskaintzaren barruan, benetan gastatutakoa ordainduko da, betiere gainditzen ez bada I. eta II. eranskinetan jasotako gehieneko mugaren %25. Zerbitzu eginkizunean eginiko gastuen justifikazioan, fakturari erantsiko zaio egitasmoaren antolakuntzak adostutako hotel eskaintzaren xehetasuna. Ostatu gastuak kudeatuko dira erabaki honen lehenengo atalaren (APLIKAZIO EREMUA ETA PRINTZIPIO OROKORRAK) 17. puntuan adierazitako moduan.

Irakaskuntza edo ikerketa lanengatik egonaldiak egin behar direnean ohiko bizilekua dagoen udalerritik kanpo, ostatu bitarteko alternatiboak aukeratu ahal izango dira: ikastetxe nagusiak, unibertsitate egoitzak, pisu eta etxebizitzaren alokairua, etab. Kasu horretan, gastua justifikatuko da fakturarekin edo errentamendu kontratuarekin, eta ordaina izango da fakturaren edo kontratuaren zenbatekoaren arabera. Zenbateko osoak ezin izango du gainditu I. eta II. eranskinetan ezarritako muga batura.

Fakturari agertuko dira: gaua hotelean eman duen pertsonaren datuak, zer egun igaro dituen bertan, jasotako zerbitzuak eta haien kostua, eta BEZari dagokio zenbatekoa.

Ez dira ordainduko hotel edo antzeko instalazioen fakturretan jasotako aparteko gastuak (minibar,

wifia, etab.).

### **Bosgarrena. BERTARATZEA**

Bertaratzetat hartuko da honako kasu hauetan eman beharreko ordaina:

- a) Administrazioen kide anitzeko organoen bileretara joatea.
- b) Pertsonala hautatzeko oposizio edo lehiaketetako epaimahaietan parte hartzea, edo lanbide batean aritzeko edota zereginen batean jarduteko gainditu beharreko probetako epaimahaietan.
- c) UPV/EHUko edo beste administrazio publiko batzuetako prestakuntza edo hobekuntza ikastaroetan laguntzea, noizbehinka egiten denean.

Administrazioaren kide anitzeko organoen bileretara joateagatik ematen diren ordainak salbuespenez emango dira hori espresuki baimentzen den kasuetan.

Inola ere ez da jasoko bertaratze mota honengatik lanpostuko ordainsarien % 25 baino gehiago hilean.

Oposizio eta lehiaketetako epaimahaietan aritzeagatik jasotako ordainen kasuan, urtean jasotako kopuru osoa ez da izango lanpostuari dagozkion ordainsarien %10 baino handiagoa.

Atal honetan jasotako ordainak bateragarriak izango dira bilera edo epaimahai hauetara bertaratzeak sortutako beste gastu batzuen ordainekin.

Ez da inolako ordainik jasoko, kide anitzeko organo, administrazio kontseilu edo hautapen epaimahai batean parte hartzea zuzenean loturik dagoenean lanpostuarekin.

Bertaratze ordainen zenbatekoa izango da erabaki honen I. eranskinean zehaztutakoa.

Bilerak larunbat edo jaiegunetan direnean, % 50 handituko dira eranskinetako zenbatekoak.

Oposizio eta lehiaketetako epaimahaietan aritzearen ordainak saioen arabera jasoko dira. Saio kopuru osoa lortzeko, prozesu osoaren ordu kopurua zenbatu eta emaitza seiez zatituko da; gainerakoa, proportzionalki ordainduko da. Edozein kasutan, prozesu osoagatik emandako ordaina ez da izango saio bati dagokiona baino txikiagoa.

Organo bakoitzeko presidenteak zehaztuko du zenbat saio ordain daitezkeen, aintzat harturik aurreikusitako saioak eta kontuan izanik hautagai kopurua, galdetegiak prestatzeko denbora, azterketa idatziak zuzentzeko denbora eta beste faktore objektibo batzuk.

Era berean, presidenteak zehaztuko du epaimahaikide bakoitzari dagokion saio kopurua, aurretik eginiko saioen akten arabera.

Gainerako bertaratze ordainak jasoko dira saio bakoitzeko, kontuan izan gabe egun bat baino gehiago irauten duen, eta egun berean saio bat baino gehiago egitea bertaratze bakartzat hartuko da.

### **Seigarrena. KANPOKO FINANTZAKETA DUTEN DEIALDIAK EDO PROGRAMAK**

Zerbitzu ordainei buruzko beren arautegia duten kanpoko finantzaketako deialdi edo programetan, arautegi horretan ezarritakoari aplikatuko da, arautegian ezarritako mugak erabaki honetakoak baino handiagoak direnean izan ezik.

Edonola ere, gogoratu behar da aurkeztu egin beharko direla gastuak justifikatuko dituzten

frogagiriak, fakturak, tiketak,... , eta ez dela onartuko banku kargurik.

Era berean, deialdiaren arautegiak ezarritako mugak erabaki honetakoak bezain onuragarriak ez badira, erabaki honetakoak aplikatu ahal izango dira, diferentzia deialdiarena ez den organiko bati egotzita.

### **Zazpigarrena. BESTE ERAKUNDE EDO UNIBERTSITATE BATZUEK ANTOLATUTAKO EKITALDIETAN PARTE HARTZEA**

UPV/EHUko kideak beste erakunde edo unibertsitate batzuek antolatutako ikastaro, konferentzia eta abarretara doazenean, erakunde antolatzaileak hartuko ditu bere gain, aurkako erabakirik ezean, bertaratze, bidaia, mantenu eta osatu gastuak.

Erakunde antolatzaileak dagokion dokumentazio bidez adierazten badu ez dituela bere gain hartuko bidaia, ostatu eta mantenu gastuak, UPV/EHUko kideek ordaina jaso ahal izango dute, dagokion ikastegiaren aurrekontuaren kontura, baldin eta dagokion ikastegiaren dekanok edo zuzendariak baimentzen badu, kontuan harturik erabaki honetan ezarritako mugak.

### **Zortzigarrena. BIDAIA GASTUETARAKO AURRERAKINAK**

Ordaina jasotzeko eskubidea ematen duen zerbitzu eginkizun bat bete behar duten pertsonak aurretik jaso ahal izango dute ordain araubide honen arabera likidatuko zaizkien gastuen gutxi gorabeherako zenbatekoa.

Aurrerakinak eman eta justifikatzeko, organikoek kutxa finkoko sistema bat izango dute, indarrean dauden instrukzioen arabera.

Emandako aurrerakinak likidatu edo justifikatu egingo dira gehienez ere 30 egun naturaletan, kontatzen hasita zerbitzu eginkizuna amaitu den egunetik.

### **Bederatzigarrena. ZERBITZU EGINKIZUNETAKO GASTUAK JUSTIFIKATZEKO EPEMUGA**

Arrazoi justifikaturik ezean, gastuen likidazioa 30 egun naturaleko epean aurkeztuko da, likidazioa eragin duen zerbitzu eginkizuna amaitzen denetik zenbatuta. Ez da inola ere ordainduko aurreko ekitaldietan eginiko zerbitzuei dagokien ordainik.

### **Hamargarrena. ORDEZKARITZA ETA PROTOKOLO GASTUAK**

#### **1. Ordezkaritza gastuak**

Unibertsitateko kideek unibertsitatetik kanpoko pertsonen arretan unibertsitatearen edo haren sail, ikastegi edo zerbitzu baten ordezkari gisa betetako eginkizunean sortutako gastuak dira, jarduera hori protokolozko ekintzetatik kanpo dagoenean. Behar-beharrezkoak diren kasuetara mugatuko dira, eta kontuan hartuko dituzte austeritate eta gobernamentu onaren irizpideak.

Gastu ordaingarriz hartuko dira ordezkari arrazoiengatik UPV/EHUtik kanpoko pertsonen eginiko bazkari gonbidapenak eta opariak, baldin eta egiten badituzte errektoreak, errektore taldeko kideak, gerentzia taldeko kideak, errektoreordetzen mendeko zuzendariak, ikastegiko dekanok edo zuzendariak -edo espresuki eta idatziz baimendutako pertsonen-, saileko edo institutuko zuzendariak, unibertsitate katedrako zuzendariak, master ofizialeko programen,



berezko tituluen eta ikastaro osagarrien arduradunek eta doktorego programaren arduradunek. Gastuen zenbateko zehatza ordainduko da, behin justifikazioa aurkeztuta, eta kasu horretan ez dira aplikatuko oro har ezarritako mugak. Gastuen justifikazioan sartuko dira parte hartu duten pertsonen izen-abizenak eta haien kargu edo lanpostuak (salbuespen gisa, UPV/EHUko kideek parte hartu ahal izango dute). Ordezkaritza gastuak jasotzea bateraezina izango da kontzeptu horretan jada ordaindutakoak ordaintzeko beste edozein gastu edo ordainarekin.

Ordezkaritza gastu batean, dokumentazio hau eskatuko da:

- Eginiko gastuaren fakturak.
- III. eranskina: Ordezkaritza gastuen justifikazioa, behar bezala beteta eta baimenduta (unibertsitateko nahiz kanpoko langileen xehetasunak erantsita).

## 2. Protokolo gastuak.

Protokolo gastutzat hartuko dira ekitaldi, zeremonia eta harrera instituzional ofizialetan sortutako gastuak, unibertsitateak antolatzen dituenen.

Besteak beste, bazkariak, apaingarriak, opariak, bidaiak, hotelek... sortutako gastuak izango dira, ondoren aipatzen diren ekitaldien antolakuntzan sortuak:

- Ikasturte hasiera.
- Bisita ofizialak, beste erakunde edo administrazio publiko batzuetako agintarien artekoak.
- Doktore berrien inbestidura.
- Honoris Causa doktore titulua eta antzekoak emateko ekitaldiak.
- Orientazio Azokak.
- Graduazio ekitaldiak.
- Urrezko domina ematea.
- Unibertsitatean 25 urte bete edo erretiroa hartu duten pertsonak omentzeko ekitaldiak.

Protokolo eta ordezkaritza gastuetan kontuan izango dira beti austeritate eta gobernamentu onaren irizpideak.

Protokolo gastuak jasotzea bateraezina izango da kontzeptu horretan jada ordaindutakoak ordaintzeko beste edozein gastu edo ordainarekin.

Atal honetan kontuan hartu gabeko beste edozein protokolo gastu Gerentziaren baimena beharko du, eta IV. eranskina bete beharko da.

Ez dira protokolo edo ordezkaritza gastutzat hartuko errektoreordetzek, ikastegiekin, sailekin edo zerbitzu jakin batekin bere kideentzat antolatutako bazkari kolektiboak, ez eta amatasunagatik edo senideen heriotzagatik langileei emandako opariak edo antzeko gastuak ere.

## **Hamaikagarrena. KONTROLA**

Barne kontroleko zerbitzuak, kanpo ikuskaritzek, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta sektore publikoko beste fiskalizazio organo batzuek kontrolatuko dute erabaki honen betetze maila.

Erabaki hau urratzen duen eta UPV/EHUri galera ekonomikoa dakarkion edozein egintza gertatuz gero, itzuli egin beharko dira soberan kobratutako zenbatekoak, horrek ekar ditzakeen beste jarduera batzuei kalterik egin gabe. Hala ere, ordainaren likidazioaren zenbateko osoa itzultzeko

eskatu ahal izango da, aurrez pentsatuta onura pertsonala lortu nahi duten jardun irregularren kasuan: hala nola dokumentuak faltsutzea, kalte-ordaina likidatzea eragin duen ziora ez bertaratzea eta larritzat hartutako beste edozein egintza.

### **Xedapen gehigarria. IZAPIDETZEA**

Zerbitzu eginkizunen ordainen likidazioa izapidetuko da dagokion kudeaketa tresnaren bidez.

#### **I. Nomina bidez ordaintzea**

Zerbitzu ordainak lan errendimendutzat hartzen dira, lan pertsonaletik edo lan edota estatutu harreman batetik zuzenean edo zeharka sortzen diren neurrian. Hala eta guztiz ere, kasu jakin batzuetan, lan etekin horiei ez zaie kargarik ezartzen eta, beraz, ez da atxikipenik egiten PFEZn.

Gainera, kotizazio oinarria kalkulatzeko, kontuan hartu behar dira Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 1472. artikuluan adierazitakoez bestelako konpentsazio eta kalte-ordain guztiak.

Horregatik guztiagatik, nomina bidez ordainduko dira atxikipen edo kotizazio pean dauden ordain kontzeptuak, kontuan izanik zehaztapan hauek:

	<b>PFEZ ordaintzen du</b>	<b>Gizarte Segurantza kotizatzen du</b>
Garraio pribatua (kilometroak)	EZ	BAI (0.26 eta 0.29 arteko kenduraz)
Mantenu / egonaldi gastuak	EZ	EZ
Bertaratze ordainak	BAI	BAI

#### **2. Erregistroa eta artxiboa**

Jatorrizko dokumentazioaren erregistroa eta artxiboa zaintzapean egongo da dokumentua sortu duen unitatearen instalazioetan.

### **II. UPV/EHUkoak EZ DIREN PERTSONEN ZERBITZU ORDAINETAN APLIKATU BEHARREKO ARAUAK**

UPV/EHUkoak ez diren pertsoneri gastuak ordainduko zaizkie, kasu hauetan:

- a) Langileak hautatzeko oposizio edo lehiaketetako epaimahaietan parte hartzea, edo lanbide batean aritzeko edota zeregin batean jarduteko gainditu beharreko probetako epaimahaietan.
- b) Ikastaroak, konferentziak, mintegiak... ematea.
- c) LOSUren 60. artikuluko enpresa edo erakundeekin eginiko ikerketa proiektuetan eta kontratuetan lankidetzan aritzea.
- d) Antzeko beste edozein jarduera.

UPV/EHUK berak kudeatu, izapidetu eta ordainduko ditu hirugarrenek lehen aipaturiko jardueretan eginiko ostatu eta desplazamendu gastuak. Ez da ordainik emango UPV/EHUK kudeatu ez duen eta haren izenean ez dagoen gasturik.

Bazkaria, afaria edo mantenua, taxia eta distantzia laburreko garraio publikoa ordaintzeko,

dagokion frogagiria aurkeztu beharko da.

Zerbitzu eta gastu ordainek aintzat hartuko dituzte erabaki honetan UPV/EHUko langileen zerbitzu ordaintzat ezarritako arauen mugak eta baldintzak.

Ez da ordainduko erabaki honetan ezarritako prozedura betetzen ez duten gasturik.

Ordain hauek oro har aplikatuko dira, alde batera utzirik zerbitzu ordainen eta konpentsazioen arloan araudi erregulatzailerik propioa duten kanpo finantzaketako deialdiak eta programak. Hala ere, erabaki honen 6. atalean ezarritakoa aplikatu behar bazaie eta salbuespen gisa faktura bidez ez justifikatzeari heldu badiote, PFEZren atxikipena aplikatu beharko da nahitaez, zerga arloko legeria betez.

Erabaki hau sinatzen den egunetik aurrera egongo da indarrean.

Leioa, 2024ko otsailaren 23a

Sin.: Federico Recart Barañano  
Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea

Sin.: Miren Lorea Bilbao Artetxe  
Gerentea

## I. ERANSKINA

### 1. Bertaratze, zerbitzu eta gastu ordainen zenbatekoak

- |                              |                                                 |
|------------------------------|-------------------------------------------------|
| - Ostatua (gosaria barne):   | 130 euro (BEZ barne)                            |
| - Bazkari edo afari gastuak: | 21 euro (BEZ barne)                             |
| - Mantenu ordaina:           | 42 euro (BEZ barne)                             |
| - Kilometrajea:              | Ibilgailua, 0,29 euro/km<br>Motoa, 0,15 euro/km |
| - Bertaratze ordainak:       |                                                 |
| Presidentea eta idazkaria:   | 70 euro/saio                                    |
| Kidea eta laguntzailea:      | 63 euro/saioa                                   |

### 2. Unibertsitateko kideei prestakuntza jarduerak emateagatiko ordaina, alde batera utzirik Berezko Ikasketen Arautegian aipatutakoak.

#### AZP:

- Prestakuntza jardueretan noizbehinka laguntzea: 70 euro/ordu

#### IRI:

- Prestakuntza birtual asinkronoko jarduerak ematea: 60 euro/ordu
- Gainerako prestakuntza jarduerak: 70 euro/ordu

## ZIENTZIA ASTEAREN JARDUERETAN PARTE HARTZEA

### Jarduera presentzialak

- Stand zientifiko presentzialen kasuan (txokoak), 200 euro ordainduko dira egun oso bakoitzeko, 8 ordu (egun erdia: 100 euro).
- Gehienez ere 100 euro ordainduko dira konferentzia bakoitzeko, bai eta kanpoko jarduera edo tailerreko ordu bakoitzeko ere. 300 euro gehienez hainbat saio/egun errepikatzen badira.
- 200 euro monologo zientifiko bakoitzeko.

Ordainketak jarduerari dagozkie, jardueran parte hartzen duten pertsonen kopurua gorabehera.

### Online jarduerak:

- Txokoak, esperimentu sekuentziak eta erakusketa tailerrak bideoz grabatuz gero (gehienez ere 10 minutuko iraupena gomendatzen da), edo gainbegiratze sinkronorik behar ez duten jardueretan (scape-rooms, kahoots, etab.), 100 euro ordainduko dira grabazioa edo jarduera egiten den hizkuntza bakoitzeko.
- Zuzeneko online jarduerak –hitzaldiak, kanpoko jarduerak, tailerrak, etab.– ordainduko dira jarduera presentzialei buruzko aurreko atalean ezarri bezala.

Ordainketak jarduerari dagozkio, jardueran parte hartzen duten pertsonen kopurua gorabehera.

Gutxienez 25 euro ordainduko dira parte hartzaile bakoitzeko.

## II. ERANSKINA

### I. Estatutik kanpoko ostatu eta mantenu gastuak, herrialdeen arabera

UPV/EHUren kasuan, pertsonalaren sailkapena aplikatzean, kontuan izango dira soilik

1. taldea eta 2. taldea.

1. taldea: errektorea

2. taldea: gainerako langileak, bai irakasle-ikertzaileak, bai administrazio eta zerbitzuetako langileak

	Zenbatekoa eurotan		
	Ostatua	Mantenua	Guztira
<b>Alemania</b>			
1. taldea	155,66	68,52	224,18
2. taldea	132,82	59,50	192,32
3. taldea	117,20	56,50	173,69
<b>Andorra</b>			
1. taldea	54,69	44,47	99,17
2. taldea	46,88	37,86	84,74
3. taldea	41,47	34,86	76,33
<b>Angola</b>			
1. taldea	158,67	66,71	225,38
2. taldea	135,23	59,50	194,73
3. taldea	119,00	55,89	174,89
<b>Saudi Arabia</b>			
1. taldea	86,55	60,70	147,25
2. taldea	73,92	54,09	128,02
3. taldea	64,91	50,49	115,39
<b>Aljeria</b>			
1. taldea	119,00	51,09	170,09
2. taldea	101,57	44,47	146,05
3. taldea	89,55	42,07	131,62
<b>Argentina</b>			
1. taldea	130,42	64,91	195,33
2. taldea	111,19	55,29	166,48

	Zenbatekoa eurotan		
	Ostatua	Mantenua	Guztira
3. taldea	97,96	50,49	148,45
<b>Australia</b>			
1. taldea	94,96	57,10	152,06
2. taldea	81,14	51,09	132,22
3. taldea	71,52	48,08	119,60
<b>Austria</b>			
1. taldea	112,39	66,11	178,50
2. taldea	95,56	58,90	154,46
3. taldea	84,74	55,29	140,04
<b>Belgika</b>			
1. taldea	174,29	91,35	265,65
2. taldea	148,45	82,94	231,39
3. taldea	131,02	78,73	209,75
<b>Bolivia</b>			
1. taldea	60,10	42,67	102,77
2. taldea	51,09	36,66	87,75
3. taldea	45,08	33,66	78,73
<b>Bosnia eta Herzegovina</b>			
1. taldea	85,34	57,70	143,04
2. taldea	72,72	49,88	122,61
3. taldea	64,31	45,68	109,99
<b>Brasil</b>			
1. taldea	150,25	91,35	241,61
2. taldea	128,02	79,33	207,35
3. taldea	112,99	74,53	187,52
<b>Bulgaria</b>			
1. taldea	62,51	44,47	106,98
2. taldea	53,49	37,86	91,35
3. taldea	46,88	35,46	82,34
<b>Kamerun</b>			

	Zenbatekoa eurotan		
	Ostatua	Mantenua	Guztira
1. taldea	103,37	55,29	158,67
2. taldea	88,35	48,68	137,03
3. taldea	77,53	45,68	123,21
<b>Kanada</b>			
1. taldea	110,59	58,30	168,88
2. taldea	94,36	51,69	146,05
3. taldea	82,94	48,68	131,62
<b>Txile</b>			
1. taldea	120,20	57,70	177,90
2. taldea	102,17	50,49	152,66
3. taldea	90,15	46,88	137,03
<b>Txina</b>			
1. taldea	84,14	51,69	135,83
2. taldea	71,52	46,28	117,80
3. taldea	63,11	43,27	106,38
<b>Kolonbia</b>			
1. taldea	145,44	90,15	235,60
2. taldea	123,81	78,13	201,94
3. taldea	109,38	73,32	182,71
<b>Korea</b>			
1. taldea	120,20	62,51	182,71
2. taldea	102,17	55,29	157,47
3. taldea	90,15	52,89	143,04
<b>Boli Kosta</b>			
1. taldea	72,12	55,89	128,02
2. taldea	61,30	49,28	110,59
3. taldea	54,09	46,28	100,37
<b>Costa Rica</b>			
1. taldea	76,93	52,29	129,22
2. taldea	65,51	44,47	109,99



	Zenbatekoa eurotan		
	Ostatua	Mantenua	Guztira
3. taldea	57,70	40,87	98,57
<b>Kroazia</b>			
1. taldea	85,34	57,70	143,04
2. taldea	72,72	49,88	122,61
3. taldea	64,31	45,68	109,99
<b>Kuba</b>			
1. taldea	66,11	38,46	104,58
2. taldea	56,50	33,06	89,55
3. taldea	49,88	29,45	79,33
<b>Danimarka</b>			
1. taldea	144,24	72,12	216,36
2. taldea	122,61	64,91	187,52
3. taldea	108,18	62,51	170,69
<b>Dominikar Errepublika</b>			
1. taldea	75,13	42,07	117,20
2. taldea	64,31	36,66	100,97
3. taldea	56,50	34,26	90,75
<b>Ekvador</b>			
1. taldea	75,73	50,49	126,21
2. taldea	64,91	43,27	108,18
3. taldea	57,10	39,67	96,76
<b>Egipto</b>			
1. taldea	106,98	44,47	151,46
2. taldea	91,35	39,07	130,42
3. taldea	80,54	36,66	117,20
<b>El Salvador</b>			
1. taldea	77,53	50,49	128,02
2. taldea	66,11	43,27	109,38
3. taldea	58,30	39,67	97,96
<b>Arabiarr Emirerri Batuak</b>			

	<b>Zenbatekoa eurotan</b>		
	<b>Ostatua</b>	<b>Mantenua</b>	<b>Guztira</b>
1. taldea	119,00	63,71	182,71
2. taldea	101,57	56,50	158,07
3. taldea	89,55	52,89	142,44
<b>Eslovakia</b>			
1. taldea	88,95	49,88	138,83
2. taldea	75,73	43,27	119,00
3. taldea	66,71	40,87	107,58
<b>AEB</b>			
1. taldea	168,28	77,53	245,81
2. taldea	143,04	69,72	212,76
3. taldea	126,21	66,11	192,32
<b>Etiopia</b>			
1. taldea	140,04	43,87	183,91
2. taldea	119,60	37,86	157,47
3. taldea	105,18	34,86	140,04
<b>Filipinak</b>			
1. taldea	84,14	45,08	129,22
2. taldea	71,52	39,67	111,19
3. taldea	63,11	36,66	99,77
<b>Finlandia</b>			
1. taldea	134,63	72,72	207,35
2. taldea	114,79	65,51	180,30
3. taldea	100,97	62,51	163,48
<b>Frantzia</b>			
1. taldea	144,24	72,72	216,97
2. taldea	122,61	65,51	188,12
3. taldea	108,18	61,90	170,09
<b>Gabon</b>			
1. taldea	117,80	59,50	177,30
2. taldea	100,37	52,89	153,26

	Zenbatekoa eurotan		
	Ostatua	Mantenua	Guztira
3. taldea	88,35	49,28	137,63
<b>Ghana</b>			
1. taldea	78,13	42,67	120,80
2. taldea	66,71	37,26	103,98
3. taldea	58,90	34,26	93,16
<b>Grezia</b>			
1. taldea	81,14	45,08	126,21
2. taldea	69,12	39,07	108,18
3. taldea	61,30	36,66	97,96
<b>Guatemala</b>			
1. taldea	105,18	49,28	154,46
2. taldea	89,55	42,67	132,22
3. taldea	79,33	39,67	119,00
<b>Ekuatore Ginea</b>			
1. taldea	102,77	56,50	159,27
2. taldea	87,75	50,49	138,23
3. taldea	77,53	47,48	125,01
<b>Haiti</b>			
1. taldea	52,89	43,87	96,76
2. taldea	45,08	37,86	82,94
3. taldea	39,67	34,26	73,92
<b>Honduras</b>			
1. taldea	81,74	49,28	131,02
2. taldea	69,72	42,07	111,79
3. taldea	61,30	38,46	99,77
<b>Hong Kong</b>			
1. taldea	142,44	57,70	200,14
2. taldea	121,40	51,69	173,09
3. taldea	106,98	48,68	155,66
<b>Hungaria</b>			

	Zenbatekoa eurotan		
	Ostatua	Mantenua	Guztira
1. taldea	135,23	52,89	188,12
2. taldea	115,39	46,28	161,67
3. taldea	101,57	42,67	144,24
<b>India</b>			
1. taldea	117,20	44,47	161,67
2. taldea	99,77	38,46	138,23
3. taldea	88,35	36,06	124,41
<b>Indonesia</b>			
1. taldea	120,20	48,68	168,88
2. taldea	102,17	42,67	144,84
3. taldea	90,15	39,67	129,82
<b>Irak</b>			
1. taldea	77,53	44,47	122,01
2. taldea	66,11	39,07	105,18
3. taldea	58,30	36,66	94,96
<b>Iran</b>			
1. taldea	94,36	51,69	146,05
2. taldea	80,54	44,47	125,01
3. taldea	70,92	40,87	111,79
<b>Irlanda</b>			
1. taldea	109,38	54,09	163,48
2. taldea	93,16	48,08	141,24
3. taldea	82,34	44,47	126,81
<b>Israel</b>			
1. taldea	108,78	63,71	172,49
2. taldea	92,56	56,50	149,05
3. taldea	81,74	52,29	134,03
<b>Italia</b>			
1. taldea	153,86	69,72	223,58
2. taldea	131,02	63,11	194,13

	Zenbatekoa eurotan		
	Ostatua	Mantenua	Guztira
3. taldea	115,39	59,50	174,89
<b>Jamaika</b>			
1. taldea	90,15	51,69	141,84
2. taldea	76,93	46,28	123,21
3. taldea	67,91	43,87	111,79
<b>Japonia</b>			
1. taldea	187,52	108,18	295,70
2. taldea	159,87	96,76	256,63
3. taldea	140,64	92,56	233,19
<b>Jordania</b>			
1. taldea	109,38	48,68	158,07
2. taldea	93,16	42,67	135,83
3. taldea	82,34	39,67	122,01
<b>Kenya</b>			
1. taldea	96,76	45,08	141,84
2. taldea	82,34	39,67	122,01
3. taldea	72,72	36,66	109,38
<b>Kuwait</b>			
1. taldea	144,24	50,49	194,73
2. taldea	122,61	44,47	167,08
3. taldea	108,18	41,47	149,65
<b>Libano</b>			
1. taldea	135,23	40,87	176,10
2. taldea	115,39	34,86	150,25
3. taldea	101,57	33,06	134,63
<b>Libia</b>			
1. taldea	119,60	62,51	182,11
2. taldea	102,17	54,69	156,86
3. taldea	90,15	51,69	141,84
<b>Luxenburgo</b>			

	Zenbatekoa eurotan		
	Ostatua	Mantenua	Guztira
1. taldea	159,27	63,11	222,37
2. taldea	135,83	55,89	191,72
3. taldea	119,60	53,49	173,09
<b>Malaysia</b>			
1. taldea	108,18	39,67	147,85
2. taldea	91,95	34,26	126,21
3. taldea	81,14	31,25	112,39
<b>Malta</b>			
1. taldea	54,09	37,26	91,35
2. taldea	46,28	31,85	78,13
3. taldea	40,87	28,25	69,12
<b>Maroko</b>			
1. taldea	116,60	45,68	162,27
2. taldea	99,17	39,67	138,83
3. taldea	87,75	36,06	123,81
<b>Mauritania</b>			
1. taldea	57,70	45,08	102,77
2. taldea	49,28	39,07	88,35
3. taldea	43,27	36,06	79,33
<b>Mexiko</b>			
1. taldea	96,16	49,88	146,05
2. taldea	81,74	43,27	125,01
3. taldea	72,12	39,07	111,19
<b>Mozambique</b>			
1. taldea	78,73	48,08	126,81
2. taldea	67,31	42,67	109,99
3. taldea	59,50	40,27	99,77
<b>Nikaragua</b>			
1. taldea	110,59	61,90	172,49
2. taldea	94,36	52,89	147,25

	Zenbatekoa eurotan		
	Ostatua	Mantenua	Guztira
3. taldea	82,94	48,08	131,02
<b>Nigeria</b>			
1. taldea	138,23	51,69	189,92
2. taldea	117,80	46,88	164,68
3. taldea	103,98	43,87	147,85
<b>Norvegia</b>			
1. taldea	156,26	89,55	245,81
2. taldea	132,82	80,54	213,36
3. taldea	117,20	76,93	194,13
<b>Zeelanda Berria</b>			
1. taldea	76,93	46,28	123,21
2. taldea	65,51	40,27	105,78
3. taldea	57,70	37,26	94,96
<b>Herbehereak</b>			
1. taldea	149,05	71,52	220,57
2. taldea	126,81	64,31	191,12
3. taldea	111,79	61,90	173,69
<b>Pakistan</b>			
1. taldea	68,52	43,27	111,79
2. taldea	58,30	37,26	95,56
3. taldea	51,69	34,86	86,55
<b>Panama</b>			
1. taldea	75,73	42,07	117,80
2. taldea	64,91	36,66	101,57
3. taldea	57,10	33,66	90,75
<b>Paraguai</b>			
1. taldea	53,49	38,46	91,95
2. taldea	45,68	33,06	78,73
3. taldea	40,27	30,05	70,32
<b>Peru</b>			

	<b>Zenbatekoa eurotan</b>		
	<b>Ostatua</b>	<b>Mantenua</b>	<b>Guztira</b>
1. taldea	93,76	50,49	144,24
2. taldea	79,93	43,27	123,21
3. taldea	70,32	39,07	109,38
<b>Polonia</b>			
1. taldea	117,20	48,68	165,88
2. taldea	99,77	42,67	142,44
3. taldea	88,35	39,67	128,02
<b>Portugal</b>			
1. taldea	114,19	51,09	165,28
2. taldea	97,36	43,87	141,24
3. taldea	85,94	41,47	127,41
<b>Erresuma Batua</b>			
1. taldea	183,91	91,35	275,26
2. taldea	156,86	82,94	239,80
3. taldea	138,23	79,33	217,57
<b>Txekiar Errepublika</b>			
1. taldea	119,00	49,88	168,88
2. taldea	101,57	43,27	144,84
3. taldea	89,55	40,87	130,42
<b>Errumania</b>			
1. taldea	149,05	44,47	193,53
2. taldea	126,81	38,46	165,28
3. taldea	111,79	35,46	147,25
<b>Errusia</b>			
1. taldea	267,45	83,54	350,99
2. taldea	227,78	73,32	301,11
3. taldea	200,74	68,52	269,25
<b>Senegal</b>			
1. taldea	79,33	51,09	130,42
2. taldea	67,91	45,08	112,99



	Zenbatekoa eurotan		
	Ostatua	Mantenua	Guztira
3. taldea	59,50	42,07	101,57
<b>Singapur</b>			
1. taldea	99,77	54,09	153,86
2. taldea	85,34	48,08	133,42
3. taldea	75,13	45,08	120,20
<b>Siria</b>			
1. taldea	97,96	52,29	150,25
2. taldea	83,54	46,28	129,82
3. taldea	73,92	43,87	117,80
<b>Hegoafrika</b>			
1. taldea	75,13	55,89	131,02
2. taldea	64,31	48,08	112,39
3. taldea	56,50	43,87	100,37
<b>Suedia</b>			
1. taldea	173,09	82,34	255,43
2. taldea	147,25	75,13	222,37
3. taldea	129,82	69,72	199,54
<b>Suitza</b>			
1. taldea	174,29	69,12	243,41
2. taldea	148,45	61,30	209,75
3. taldea	131,02	57,70	188,72
<b>Thailandia</b>			
1. taldea	81,14	45,08	126,21
2. taldea	69,12	39,07	108,18
3. taldea	61,30	36,66	97,96
<b>Taiwan</b>			
1. taldea	96,16	54,09	150,25
2. taldea	81,74	48,68	130,42
3. taldea	72,12	45,68	117,80
<b>Tanzania</b>			

	Zenbatekoa eurotan		
	Ostatua	Mantenua	Guztira
1. taldea	90,15	34,86	125,01
2. taldea	76,93	30,05	106,98
3. taldea	67,91	26,44	94,36
<b>Tunisia</b>			
1. taldea	60,70	54,09	114,79
2. taldea	51,69	46,28	97,96
3. taldea	45,68	49,07	87,75
<b>Turkia</b>			
1. taldea	72,12	45,08	117,20
2. taldea	61,30	39,07	100,37
3. taldea	54,09	36,06	90,15
<b>Uruguai</b>			
1. taldea	67,31	46,68	116,00
2. taldea	57,70	41,47	99,17
3. taldea	50,49	37,86	88,35
<b>Venezuela</b>			
1. taldea	91,35	42,07	133,42
2. taldea	78,13	36,06	114,19
3. taldea	68,52	33,66	102,17
<b>Yemen</b>			
1. taldea	156,26	49,28	205,55
2. taldea	132,82	43,27	176,10
3. taldea	117,20	40,27	157,47
<b>Jugoslavia</b>			
1. taldea	115,39	57,70	173,09
2. taldea	98,57	49,88	148,45
3. taldea	86,55	45,68	132,22
<b>Zaire/Rongo</b>			
1. taldea	119,00	60,70	179,70
2. taldea	101,57	54,09	155,66

	<b>Zenbatekoa eurotan</b>		
	<b>Ostatua</b>	<b>Mantenua</b>	<b>Guztira</b>
3. taldea	89,55	51,69	141,24
<b>Zimbabwe</b>			
1. taldea	90,15	45,08	135,23
2. taldea	76,93	39,07	116,00
3. taldea	67,91	36,06	103,98
<b>Munduko beste herrialdeak</b>			
1. taldea	127,41	46,88	174,29
2. taldea	108,78	40,87	149,65
3. taldea	95,56	37,26	132,82

### III. ERANSKINA

#### I. Ordezkaritza gastuen justifikazioari erantsi beharreko ziurtagiria

<b>ORGANIKOAREN ARDURADUNA:</b> Izen-abizenak: Kargua:		
<b>GASTUAREN DESKRIBAPENA:</b> Enpresa/hornitzailea: Zenbatekoa: Gastuaren arrazoa:		
Otorduko pertsona kop. (hala badagokio):		
Otorduan izan diren pertsonak (izena eta kargua)	<u>Izena</u>	<u>Kargua</u>
<b>AURREKONTU APLIKAZIOA</b>		
<b>DATA ETA LEHENENGO ARDURADUNAREN SINADURA</b>	Data:	
<b>DATA ETA BIGARREN ARDURADUNAREN SINADURA</b>	Data:	

#### IV. ERANSKINA

##### I. Protokolo gastuaren proposamena

Organo kudeatzailea		
Protokolo ekitaldiaren deskribapena		
Zenbatekoa		
Justifikazioa: Interesa unibertsitatearentzat		
Lotura organo kudeatzailearen funtzioekin		
Protokolo ekitaldiaren onuradunak: izenak eta	Izenak	Karguak
Aurrekontu aplikazioa		
Gastuaren proposatzailea: izena eta kargua		
Baimena:	UPV/EHUko Gerentziaren sinadura	